kutxabank

Azaroaren 20ra arte

Kutxabankek 50 euroko saria emango die 18 urtetik beherako bezero berriei kirol-proiektuekin eta gizarte-proiektuekin lotura izateagatik

Abantailak eskuratuko dituzte, hala nola Bizum 12 urtetik aurrerako adingabeentzat, online banka guraso kontrolarekin eta Korner txartela, atzerrian ordainketak eta diru-ateratzeak doan egiteko

Gaztedi kontuarekin, hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute: ingeles-udalekuak eta egonaldiak atzerrian, campus tematikoak, kirol-jarduerak, robotika-, zientzia- eta programazio-tailerrak eta esperientzia digitalak

26.9.30. Kutxabankek 18 urtetik beherakoei zuzendutako ekimena jarri du martxan, eta 50 euro garbiko saria emango die onarriko kirol-proiektuekin eta gizarte-proiektuekin lotura izateagatik. Hasiera batean, 1000 klub eta elkartek sustatu dituzte proiektu horiek, eta entitate gehiago gehituko zaizkie. Dirua berehala sartuko da bezero gazte berrien kontuan.

Pizgarria eskuratzeko, bezero berriek alta formalizatu behar dute Kutxabanken bulegoetako batean, kide diren klub edo elkartea adierazi, eta Gaztedi Kontua edo Gaztedi Plana kontratatu. Kanpaina azaroaren 20ra arte egongo da indarrean.

Bezero gazteenentzako zerbitzuak eta jarduerak
Kanpaina honetako bezero berriek eskura izango dituzte Kutxabankek 18 urtetik beherakoentzako eskaintza honen abantailak. Besteak beste, hauek:

- Bizum 12 urtetik aurrerako adingabeentzat, adin-tarte bakoitzera egokitutako mugekin, dirua bidali eta jasotzeko;
- online banka guraso-kontrolarekin 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat; eta
- Debit Korner txartela, atzerrian ordainketak eta diru-ateratzeak egitea ahalbidetzen duena, dibisa-trukeagatiko komisiorik gabe (kutxazainaren jabe den entitateak ezar ditzakeenak izan ezik).

Finantza-zerbitzuez gain, gazteek Gaztedi jarduera-programak (gazteei zuzendutako programa) eskaintzen dituen jarduerez gozatu ahal izango dute, hala nola ingeles-udalekuak eta egonaldiak atzerrian, campus tematikoak, kirol- eta natura-jarduerak urte osoan zehar, baita robotika-, zientzia- eta programazio-tailerrak eta esperientzia digitalak ere.

Kanpaina honetan parte hartzen duten gazteek ezin izango dute aurreko sei hilabetetan bankuaren bezero izan, eta lotura gutxienez 12 hilabetez mantendu beharko dute.